

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Juno Moneta, diruaren jainkosa



HUMANITIES.MQ.EDU.AU



FONDO DEGLI EDIFICI DI CULTO

Ezkerrean, K.a. 46. urteko txanpon erromatarra; gainaldean Juno Monetaren irudia, eta, atzealdean, txanpongilearen tresnak eta izena (T. Carisius). Eskuinean, Juno Monetaren tenplua egon zen tokia; haren arrastoen gainean San Maria Ara Caeli eliza eraiki zuten Erdi Aroan.

ERROMA, K.A. 344. Juno Moneta jainkosari eskainitako tenplua zabaldu zuten Kapitolioan, hiriko zazpi muinoetako batean. Juno zeruko erregina eta argiaren jainkosa zen, haurdunaldiaren, erditzearen eta ezkontzaren babeslea. Kapitolioko hirukoa osatzen zuen Jupiter eta Minervarekin batera. Saturno eta Opsen alaba zen, Jupiteren arreba eta emaztea, Marte, Vulkano eta Ilitiaren ama. Ekaitzekin jokatzeko gustuko zuen eta, suminduta zegoenean, Olinpo osoa dardarazten zuen.

Baina erromatarrei mesede ere egiten zien, esaterako, Moneta ezizenpean. Kondairak dioenez, K.a. 390ean galiarrek Kapitolia eraso zuten. Baina Junoren tenpluaren inguruan zebiltzan antzarak (jainkosaren hegaztiak), ohi duten moduan, zalapartan hasi ziren eta horrek hiritarrak ohartarazi omen zituen. Horri esker, erromatarrek galiarrei aurre egin zieten eta, esker onez, jainkosari “moneta” ezizena eman zioten.

Hitzaren jatorria latinezko *monere* omen da (ohartarazi). Hala, Juno Moneta, jainkosa ohartarazlea litzateke. Zenbait adituren iritziz, ordea, hitzaren jatorria *mons* da, “muinoa” edo “mendia”, eta Kapitolioan lehengo ere zeruko erreginari eskainitako tenplua omen zegoelako hartu zuen izena.

K.a. 273. urtean, tenplua eraiki (edo berreraiki) eta hamarkada batzuk geroago, tenpluaren aldamean eta bere babesean zegoen eraikin batean txanponak ekoizten hasi ziren. Hurrengo lau mendeetan, Augusto enperadorearen agintaldira arte, Erromako zilarrezko txanpon guztiak lantegi horretan egiten ziren eta horietako askok Juno Monetaren beraren irudia zuten.

Horrenbestez, denbora kontua besterik ez zen izan txanponari berari “moneta” esatea. Eta handik etorriko ziren ingelesezko *money*, frantsesezko *monnaie*, gaztelarazko *moneda* eta italiarazko nahiz euskarazko *moneta*.

Arrastoak

Benetako Da Vinci kodea?

DA VINCIREN *GIOCONDA* enegarren aldiz ikertu dute. Oraingoan Silvano Vincetti historialari italiarrak izan du aztergai. Obra ezaguna eskanerretik pasatu du eta emakumearen begietan hizkiak topatu omen ditu: eskuinekoan “LV” (egilearen izena adieraziko lukete) eta ezkerrekoan “CE” edo “B”. Vincettiren ustez koadroko emakumea ez da Lisa Gherardini, askok pentsatzen duten moduan, eta letra horiek benetako modeloaren izena gorde lezakete, haren esanetan. Aurpegiaren eskuinean dagoen zubitxo batean “72” edo “L2” jartzen omen du eta mihisearen atzealdean “149” zenbakia dago idatzita. Sinbolo kabalistikoak dira? Koadroak kode misterioitsuak gordetzen ditu? Ala Dan Brownen sindromea besterik ez da?

LEONARDO DA VINCI

